

ADIERAZPENA

Debako Udalbatzak 2014ko ekainean Itziarko Toki Entitate Txikiaren txosten justifikatiboa onartu eta 2015eko urtarrila bukaeran GFAk 3/2015 Foru Dekretua argitaratu ostean, urte bereko otsailaren 27an eratu zen Itziarko Auzo Udala.

Itziarko bizilagunen autogobernurako nahi historikoa bideratzea izan zen auzo udala eratzearen arrazoi nagusia, honek zerbitzuen hobekuntza eta auzoetako beharrak errazago identifikatzeko aukera ekarriko zuelako, betiere Debako udalerrriaren interes orokorrak kaltetu gabe.

2015eko otsaila bukaeran, beraz, 3 laguneko gestora eratu zen 2011-2015eko legealdia bukatu bitartean. Eta 2015eko ekainaz geroztik auzo alkateak eta 4 juntakidek osatzen dute, ofizialki, auzo udalaren talde motorra, guztira 10-15 laguneko talde eragilea izan arren.

2015-2019ko legealdian Itziarko batzordea eratu zen eta hitzarmena adosteko hainbat bilera egin ziren. Legealdi honetan jarraipena eman zaio lanketa horri, eta Itziarko Auzo Udalaren eskumenak aitortzen dituen hitzarmena adostu dugu Debako udalak eta Itziarko auzo udalak aho batez.

Elkarlana oinarri, parte hartu dugun taldeon artean beharrak, kezkak, antolaketa moduak, eskumenak... aztertu eta negoziatu ditugu. Eta, Toki Entitate Txikiaren ibilbidea hasi zela 6 urte betetzear dauden honetan, adierazpen hau sinatzen dugun kideok honako konpromisoa hartzen dugu:

- Gaurtik aurrera, bi instituzioen arteko koordinazioa hobetu eta pausoak aurrera ematea.
- Hitzarmen honi izaera dinamikoa onartzea, moldaketak egiteko aukera emanez.
- Gertaera honi garrantzizko izaera ematea, inflexio puntu hau oinarritzko aurrerapausoa izango delako bai Debako udalaren eta baita Itziarko auzo udalaren jardunerako ere.
- Instituzio bakoitzak dagozkion arloetan eta orokorrean udalerriko herritarren beharrei erantzuten jarraitzea.

Deba-Itziarren, 2020ko abenduaren 18an.

GILEN GARCIA BOYRA
Debako alkatea

ARANTZA EGAÑA ALDALUR
Itziarko auzo alkatea